2008
EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO
Turismo Sailordetza
Viceconsejería de Turismo
n.º 23

# Euskal Turismoaren Txostena
# Informe del Turismo Vasco



## Bisitari atzerritarrak Euskadin FRONTUR 2007

## Los visitantes extranjeros en el País Vasco FRONTUR 2007

MERKATUAREN AZTERKETA | ANÁLISIS DEL MERCADO

© «Argazki» Eusko Jaurlaritza • Gobierno Vasco / Mikel Arazola

# Aurkezpena

# *Presentación*

Eusko Jaurlaritzak, BASQUETOUR Turismoaren Euskal Agentziaren bidez, aurten ere aurkeztu du Azterketa Turistikoen Institutuak landutako Mugetako Turismo Mugimenduak (FRONTUR) proiektuaren estatistika jarraituaren Euskal Autonomia Erkidegorako berariazko ustiapena, Euskadin dagoen turismo-errealitatea ulertzeko ahaleginaren barruan.

Txosten honetako informazioa 2007. urteari buruzkoa da. Informazio hori 1998. urtetik aurrerako urteetako informazioari gehitu behar zaio. Horrela, serie osoari begiratuta, Euskal Autonomia Erkidegora etortzen diren turista atzerritarren eskariaren portaera eta joerak definitzen dituzten egiturazko ezaugarrien irudi zehatza izango dugu, urteko koiunturetatik haratago.

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak eskerrak ematen dizkio Azterketa Turistikoen Institutuari, bi erakundeok sinatutako hitzarmenaren esparruan Institutuak eskaini duen laguntzagatik. Horri esker, Estatu eremuko turismoaren arloan den estatistika sendoenetariko baten fitxategiez baliatzeko aukera izan dugu.

*El Gobierno Vasco, a través de la Agencia Vasca de Turismo BASQUETOUR, presenta un año más los resultados de la explotación específica para la Comunidad Autónoma Vasca de la estadística continua de Movimientos Turísticos en Fronteras (FRONTUR) del Instituto de Estudios Turísticos, como parte del esfuerzo por la comprensión de la realidad turística existente en Euskadi.*

*La información contenida en este informe se refiere al año 2007, y se viene a sumar a la existente en años anteriores en una serie que comienza en 1998, para dibujar una imagen precisa de los rasgos estructurales que definen el comportamiento de la demanda turística extranjera con destino en el País Vasco y sus tendencias, más allá de las coyunturas anuales.*

*La Agencia Vasca de Turismo del Departamento de Industria y Comercio y Turismo del Gobierno Vasco quiere agradecer la colaboración prestada por parte del Instituto de Estudios Turísticos en el marco del convenio sucrito entre ambas instituciones, que permite el acceso a los ficheros de una de las estadísticas más robustas del panorama estadístico nacional en el ámbito del turismo.*



## Fitxa teknikoa:

Espainiara hilero-hilero mugak zeharkatuz iristen diren turismo-fluxuak neurtzeko oinarrizko iturri ofiziala da FRONTUR-eko estatistika. Estatistika hori etengabea da, eta 2005/2008 Espainiako Estatistika Planaren barnean dago, 4.244 zenbakiarekin.
Argitalpen honetan aurkezten diren taulak egiteko erabili den informazioa, bidaiariei egindako inkestetatik atera da. Euskal Autonomia Erkidegoa bisitatu zuten bidaiariei egin zitzaizkien inkesta horiek, Espainiara aireportuz edo errepidez sartzean. Horretarako, 10.000 inkesta inguru egin dira.

## *Ficha técnica:*

*La estadística de FRONTUR es la fuente oficial básica para la medición de los flujos turísticos que llegan a España mes a mes por las distintas fronteras. Tiene carácter continuo y forma parte del Plan Estadístico Nacional 2005-2008 con el Nº 4.244.*
*La información utilizada para la realización de las tablas que se presentan en esta publicación procede de las encuestas realizadas a los viajeros en las entradas a España por aeropuerto y carretera que visitaron el País Vasco. Para ello se han realizado cerca de 10.000 encuestas.*

# Atzerrian bizi eta EAE aukeratu duten bisitarien tipologia

## *Tipología de visitantes residentes en el extranjero con destino en el País Vasco*

Euskadira, 2007an, 8.939.458 atzerritar bisitari etorri ziren. Horrek esan nahi du 300.000 bisitari baino gehiagoko beherakada izan dela, aurreko urtearen aldean. Bat bateko joera aldaketa da, hartutako bisitariak zenbait urtez etengabe hazi eta gero.

Bisita gehienak txango jarduerakoak dira. Aldiz, gaualdia eta guzti egindako bisitak, berriro ere, milioia baino gutxiago dira, eta guztizkoaren hamarrena baino gehixeago dira.

Bi bisitari taldeek —txangozaleek eta turistek— atzerritar bisitarien artean eskari orokorrak izandako atzerakada nabari dute. Hala ere, jaitsiera nabarmen handiagoa da turisten artean (2006an baino %7 gutxiago izan baitira), txangozaleen multzoan baino (%3 baino gehixeago gutxitu dira).

Gure autonomia erkidegoan atzerriko txangozaletasunak garrantzi handia izan du urtetan; horixe da gure turismo eskariaren ezaugarri nabarmenenetako bat. Izan ere, alde batetik, nazioarteko mugaren alde bien artean dagoen elkarlotura handi-handiaren adierazgarri da, mugaren etenik ez duen lurralde jarraitu baten moduko jokabidea erakusten baitu laneko, merkataritzako, negozioetako, aisiako nahiz afektibitateko fluxuetan; eta, bestetik, Estatuko beste alde batzuetan turismo-fluxu masiboak dakartzan eguzki eta hondartzazko oporereduak Euskadin sarbide handirik ez duela islatzen du.

*En 2007 Euskadi registra la llegada de 8.939.458 visitantes extranjeros. Ello supone un descenso de más de 300.000 visitantes con respecto al año anterior, en un cambio brusco de tendencia tras varios años de constantes crecimientos en la recepción de visitantes.*

*La mayor parte de las visitas corresponden a una actividad excursionista, en tanto que las visitas con pernoctación, de nuevo por debajo del millón, constituyen poco más de una décima parte del total.*

*Ambos grupos de visitantes, excursionistas y turistas, acusan el retraimiento de la demanda general entre los visitantes extranjeros, si bien la caída es manifiestamente superior entre los turistas, entre los que la afecta a cerca de un 7% del volumen recibido en 2006, frente a una caída de poco más de un 3% sufrida por el conjunto del excursionismo.*

*El enorme peso que año tras año tiene en nuestra comunidad el excursionismo extranjero es sin lugar a dudas uno de los rasgos más significativos de nuestra demanda turística. Ello es debido, por un lado, al enorme grado de interrelación existente entre los dos lados de la frontera vasco-francesa, con flujos laborales, comerciales, de negocios, ocio o afectivos que demuestran una continuidad territorial muy alejada del concepto de separación fronteriza, mientras que, por otro lado, constituye el reflejo de la escasa penetración que tiene en Euskadi el modelo vacacional de sol y playa que aporta flujos turísticos masivos a otras áreas del Estado.*

EAE aukeratu duen bisitari mota. 2004-2007 urteetako bilakaera
*Tipo de visitantes con destino en el País Vasco. Evolución anual 2004-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duen bisitari mota. Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko konparazioa 2004 -2007
*Tipo de visitantes con destino en el País Vasco. Comparación Estado-C.A. País Vasco 2004-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskadik eta Estatu osoak bisita-eredu nabarmen bereiziak ageri dituzte, gaualdia egin edo ez egin.

Txangozaletasuna nagusi da ari eta garbi Euskadin, bisiten %90 baitakar; %40ra apenas iristen den Estatuan.

Eskariaren egitura biak oso egonkorrak dira.

*Euskadi y el conjunto del Estado muestran modelos de visita manifiestamente separados de acuerdo a la realización o no de pernoctaciónes.*

*El dominio del excursionismo es masivo en Euskadi, con casi un 90% de las visitas, mientras que apenas acanza el 40% en el Estado.*

*Ambas estructuras de la demanda son muy estables.*



EAE aukeratu duen bisitari mota, garraiobidearen arabera. 2004-2007 urteetako bilakaera
*Tipo de visitantes con destino en el País Vasco por modo de transporte. Evolución anual 2004-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Atzerritarrek Euskadira egindako bisitak gehienbat eskualde- eta bailara-eremukoak direnez, bisitari gehien-gehienak errepidez etortzen dira (%97 bisitari).

Errepidearen erabileraren eta aireportuaren erabileraren arteko desoreka hori, txangozaletasunaren garrantziak eragiten du; izan ere, aparteko kasuetan izan ezik, txangozaleek ez dute hegazkina erabiltzen.

Dinamika horri kontra eginez, bisitaldiak gaualdia egitea dakarrenean, hegazkinak badu merkaturik. Hartara, turisten artean ere iristeko bide nagusia errepidea den arren, 2tik 1eko proportzioan baizik ez da nagusi.

Iristeko bi bide horien arteko erlazioa, Euskadi bisitatzera datozenen artean, oso egonkorra da urteetan zehar. Funtsean, errepidez datozen txangozaleen kopuruaren aldakuntzaren mende dago. Horrek, gainerako tipologietatik edozeinetan izaten diren askoz ehuneko handiagoko aldakuntzak estaltzen ditu.

*En función del dominio del carácter comarcal y regional de las visitas extranjeras a Euskadi, el acceso por carretera resulta absolutamente masivo, siendo utilizado por casi un 97% de las visitas.*

*Esta desproporción entre el uso de la carretera y el aeropuerto se debe al peso del excursionista, que salvo casos aislados no hace uso del avión.*

*Frente a esta dinámica, el avión si cuenta con mercado asentado cuando la visita conlleva pernoctación. Así, si bien entre el turismo también domina el acceso por carretera, solo lo hace en una porporción de 2 a 1.*

*La relación de pesos entre los dos tipos de acceso existentes entre los visitantes a Euskadi es muy estable a lo largo de los años. Depende fundamentalmente de la variación en el volumen de excursionistas por carretera, que encubre variaciones porcentualmente muy superiores en cualquiera de las tipologías restantes.*



# EAE aukeratu duten turistak

# *Turistas con destino en el País Vasco*

Euskadira 2007an iritsitako turisten kopurua, berriz ere, milioitik beherakoa da. Guztira 950.000 turista dira. Horrek esan nahi du erregistraturiko sarrerak %6,6 gutxitu direla, 2006. urtearen aldean. Turismo-sarreren kopurua, hala ere, aurretiko edozein urtetan izandakoa baino handiagoa da, aurreko urte hori alde batera uzten badugu.

Euskadira datozen atzerritar bidaiarien fluxuaren gutxitzea ez doa proportzio berean hona etortzeko bide guztietan, ez eta urteko hil guztietan ere. Guztira izan diren ia 68.000 turista gutxiago horietatik, merkataritza-hegazkinetako bidaiarietan izandako beherakadari dagozkio 2/3. Orobat, beherakadak urteko azken 5 hiletan metatu dira, bereziki airez datozenen artean.

Dena dela, 2007a da XXI. mendean airez turista gehien etorri diren urtetatik bigarrena. Izan ere, erregistroak aurreko urteetan —bereziki, 2006. urtean— izandako gehikuntza handiaren zati bat atzera kendu besterik ez du egiten.

Sarreraren adiari dagokionez, bidaiarien fluxuaren beherakadak ekainetik aurrera gertatu dira, airez datozen bidaiarien artean; eta abuztutik aurrera, lurrez datozenen artean. Ordu arte, esan daiteke urtebete lehenago erregistraturiko zifren aldean gehikuntza ere gertatu dela.

*El número de turistas llegados a Euskadi en 2007 cae de nuevo por debajo del millón. Son 950.000 turistas, lo que supone un decrecimiento de hasta un 6,6% del volumen de entradas registradas durante el año 2006. A pesar de ello, el volumen de entradas turísticas se sitúa por encima del existente en cualquier momento anterior con excepción del citado curso previo.*

*La caída en el flujo de viajeros extranjeros que recalan en Euskadi no es proporcional a los diferentes volúmenes existentes según la vía elegida de entrada, ni tampoco a los existentes en los diferentes meses en que éstas se realizan. De los casi 68.000 turistas menos existentes, 2/3 corresponden a la caída regristrada en el aporte de los pasajeros de la aviación comercial. Al tiempo, las caídas se acumulan en los 5 últimos meses del año, particularmente entre aquellos que acceden por vía aérea.*

*Aún así, 2007 representa el segundo año con más turistas extranjeros con acceso por vía aérea del siglo XXI, dado que el registro no hace sino revertir una parte del importante incremento acusado durante los años anteriores y, particularmente, en el año 2006.*

*En cuanto al periodo de entrada, las caídas en el flujo de viajeros se dan a partir de junio, entre los viajeros procedentes por vía aérea, y a partir de agosto, cuando acceden por vía terrestre. Hasta entonces, puede hablarse incluso de un crecimiento sobre las cifras registradas un año antes.*

## Garraiobidea

## *Modo de transporte*



EAE aukeratu duten turistak, garraiobidearen arabera. Hilen arteko bilakaera 2005-2007
*Turistas con destino en el País Vasco por modo de transporte. Evolución mensual 2005-2007*

| | | Guztira / *Total* | Sarbidea / *Vía de acceso* | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Errepidea / *Carretera* | Aireportua / *Aeropuerto* |
| 2005 | **Guztira/*Total*** | 927.047 | 657.453 | 269.594 |
| | Urtarrila/*Enero* | 39.625 | 25.403 | 14.222 |
| | Otsaila/*Febrero* | 34.523 | 22.418 | 12.105 |
| | Martxoa/*Marzo* | 48.033 | 26.469 | 21.564 |
| | Apirila/*Abril* | 56.542 | 35.780 | 20.762 |
| | Maiatza/*Mayo* | 67.978 | 43.828 | 24.150 |
| | Ekaina/*Junio* | 79.691 | 49.081 | 21.610 |
| | Uztaila/*Julio* | 143.191 | 115.847 | 27.344 |
| | Abuztua/*Agosto* | 192.788 | 164.125 | 28.663 |
| | Iraila/*Septiembre* | 102.020 | 68.576 | 33.444 |
| | Urria/*Octubre* | 59.844 | 36.422 | 23.422 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 54.010 | 31.013 | 22.997 |
| | Abendua/*Diciembre* | 57.800 | 38.489 | 19.311 |
| 2006 | **Guztira/*Total*** | 1.018.510 | 688.576 | 329.934 |
| | Urtarrila/*Enero* | 39.585 | 23.271 | 16.314 |
| | Otsaila/*Febrero* | 36.826 | 22.887 | 13.939 |
| | Martxoa/*Marzo* | 47.847 | 23.311 | 24.536 |
| | Apirila/*Abril* | 78.348 | 51.990 | 26.358 |
| | Maiatza/*Mayo* | 94.977 | 62.328 | 32.649 |
| | Ekaina/*Junio* | 72.584 | 43.043 | 29.541 |
| | Uztaila/*Julio* | 161.126 | 123.610 | 37.516 |
| | Abuztua/*Agosto* | 189.834 | 149.668 | 40.166 |
| | Iraila/*Septiembre* | 105.377 | 68.804 | 36.573 |
| | Urria/*Octubre* | 80.258 | 48.512 | 31.746 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 54.643 | 34.199 | 20.444 |
| | Abendua/*Diciembre* | 57.105 | 36.953 | 20.152 |
| 2007 | **Guztira/*Total*** | 950.688 | 663.317 | 287.371 |
| | Urtarrila/*Enero* | 53.030 | 36.303 | 16.727 |
| | Otsaila/*Febrero* | 47.308 | 29.044 | 18.264 |
| | Martxoa/*Marzo* | 59.786 | 35.076 | 24.710 |
| | Apirila/*Abril* | 76.153 | 48.728 | 27.425 |
| | Maiatza/*Mayo* | 79.818 | 51.638 | 28.180 |
| | Ekaina/*Junio* | 77.000 | 52.348 | 24.652 |
| | Uztaila/*Julio* | 158.001 | 124.310 | 33.691 |
| | Abuztua/*Agosto* | 159.317 | 127.983 | 31.334 |
| | Iraila/*Septiembre* | 76.666 | 49.497 | 27.169 |
| | Urria/*Octubre* | 75.988 | 49.594 | 27.394 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 43.021 | 29.692 | 13.329 |
| | Abendua/*Diciembre* | 43.601 | 29.105 | 14.496 |




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Atzerritar turismoak, Euskadin, urtesasoikako egitura du, nabarmen. Udako hilak —bereziki, uztail-abuztuak— dira nagusi, argi eta garbi, gainerakoen gainetik. Eta udako eta udazkeneko hilak, era berean, nabarmen nagusitzen zaizkie negukoei.

Urteko lehen erdian, 2007ak 23.000 bidaiariko gehikuntza du metatua. Une horretatik aurrera, aitzitik, joera nabarmen alderantzikatu da.

Bidaiari kopuruaren beherakada urtearen bigarren erdi osoan izan da, baina batez ere abuztu-irailetan. Horrek, neurri batean, arindu egiten du serieko urte-sasoikako banaketa.

*El turismo extranjero en Euskadi tiene un carácter marcadamente estacional, con franco predominio de los meses veraniegos, particularmente julio y agosto, sobre el resto, y una prevalencia también claramente superior de los meses primaverales y otoñales sobre los invernales.*

*Durante la primera mitad del año, 2007 acumula un aumento de viajeros de 23.000 viajeros. A partir de ese momento, por el contrario, la tendencia se revierte de un modo muy acusado.*

*La caída en el número de viajeros se reparte a lo largo de la segunda mitad del año, pero afecta de manera particularmente marcada a los meses veraniegos de agosto y septiembre, lo que mitiga en alguna medida la estacionalidad de la serie.*

EAE aukeratu duten turistak, garraiobidearen arabera. 2004-2007 urteetako bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por modo de transporte. Evolución anual 2004-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Turisten hilen arteko bilakaera, garraiobidearen arabera 2005-2007
*Evolución mensual de los turistas por modo de transporte 2005-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Bidaiari-fluxuko krisialdia lehenago hasi da hegazkina erabiltzen duten bidaiarien artean, errepidez datozenen artean baino. Lehendabiziko horien artean, gutxitzea ekainean hasi da; bigarrenen artean, aldiz, beherakada abuztutik aurrera nabarmentzen da. Hartara, aurreko urteetan ez bezala, abuztuan uztailean baino turista gutxi batzuk gehiago izan genituen.

Aireportuzko bideak gutxitze konstanteak ditu hilez hil, aurreko fluxuen aldean, gutxitzeak hasten direnez geroztik. Errepidez, ordea, krisialdia aldi batez ez da konstantea: zehazki esanda, urrian, arreko urtean baino bidaiari batzuk gehiago etorri ziren.

Atzerritar turisten kopurua txikiagotzea eragiten duten arrazoiek bere hartan jarraitzen badute, 2008. urtean bidaiari-kopurua berriro gutxitzea ekarriko lukete, bereziki airez datozenen artean.

2007. urtea, atzeraldiko urtea da, atzerritar turisten iritsieren seriean. Euskadik guztira ia 68.000 turista gutxiago izan ditu. Hala ere, urtebete lehenago izandako gehikuntza handia dela kausa, urte ona izaten jarraitzen du.

Bisita-kopuruaren beherakada ez da berdin iristeko bide guztietan, askoz txikiagoa baita errepidez datozenen artean, hala kopuru absolututean nola ehunekoetan.

*El comienzo de la crisis en el flujo de viajeros se da más tempranamente entre los viajeros que utilizan el avión que entre aquellos que acceden por carretera. Entre los primeros, el decremento comienza en el mes de junio, en tanto que entre los segundos, el descenso es notorio a partir de agosto, de modo que, contrariamente a lo que venía sucediendo en los años anteriores, apenas se cuenta en agosto con unos pocos turistas más que en julio.*

*La vía aeroportuaria muestra decrementos constantes mes a mes sobre los flujos previos una vez que estos comienzan. Por carretera, en cambio, se da alguna inconstancia pasajera en la crisis, concretamente en un mes de octubre capaz de atraer algunos viajeros más que el mismo del año anterior.*

*Una continuidad en los motivos que generan la caída en el número de turistas extranjeros provocaría una nueva reducción en el número de viajeros en el año 2008, especialmente entre los que acceden por vía aérea.*

*2007 representa un año de retroceso en la serie de llegada de turistas extrajeros. Euskadi ha contado con casi 68.000 turistas menos, a pesar de lo cual, y dado el importante incremento disfrutado un año antes, sigue siendo un buen año.*

Aireportuzko bidean, 40.000 sarrera baino gehiagoren gutxitzea izan da, aurreko urtearen aldean. Gutxitze horren ondorioz, urtebete lehenago Euskadi helmugatzat zuten bisitarien %13 desagertu dira. Urtearen erdialdean gertaturiko joera-aldaketa erabatekoaren ondorena da hori.

*La caída en el número de visitas es desigual según la vía de llegada, mucho menor en carretera tanto en términos absolutos como porcentuales.*

*El acceso aeroportuario muestra más de 40.000 entradas menos en relación al año anterior. Este decremento supone la desaparición de hasta un 13% de los viajeros con destino a Euskadi existentes un año antes, y es debido a un radical cambio de tendencia surgido a mitad de año.*

## Bizilekua

## *Lugar de residencia*

EAE aukeratu duten turistak, garraiobidearen eta bizilekuaren arabera. 2005-2007 urteetako bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por modo de transporte y lugar de residencia. Evolución anual 2005-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Atzerritarrak Euskadira etortzeko eskarian, errepidea da nagusi, distantzia motz eta ertaineko turismoaren nolabaiteko mendekotasuna duelako. Frantziatik datozenak dira eskari osoaren %45 (400.000 turista baino gehiago), errepidez etortzen direnen bolumenaren ia %60 izanik. Aitzitik, aireko garraioz etortzen direnen artean, Euskadirekin puntutik punturako konexioa duten herrialdeetakoak —hau da, Erresuma Batukoak eta Alemaniakoak— dira nagusi; eta, oro har, sailkapenaren gorenean ez dauden Europako herrialdeetakoak, lehendabizikoen aldean garrantzia handiagoa hartu baitute.

Krisiak ez du eragin bera izan jatorri bakoitzeko bidari kopuruan. Izan ere, distantzia labur eta ertaineko frantses turismoa, errepidetik datorrena, bolumen handiagokoa da orain; horrenbestez, pisu osoa ere handiagoa du, oro har urritzeko joera duen ingurune honetan. Aireko garraioan, Erresuma Batuak eta Alemaniak beherakada handiak dituzte, eta Europako beste herrialdeetatik datozen bisitarien gehikuntzak baizik ez du galera hori arindu.

*El dominio de la carretera en la demanda extranjera vasca viene determinado por una cierta dependencia de un turismo de corta y media distancia. El origen francés define el 45% de la demanda total, más de 400.000 turistas, y hasta casi un 60% del volumen que accede por carretera. Por el contrario, por transporte aéreo dominan los originarios de países con los que existen conexiones aéreas punto a punto, Reino Unido y Alemania, y en general, las procedencias europeas fuera del top de principales, que han incrementado su peso frente a los primeros.*

*El efecto de la crisis de viajeros es muy desigual por procedencias. De hecho, el turismo francés de corta y media distancia, con acceso por carretera, ve incrementado su volumen, y por tanto su peso global en un contexto de merma generalizada. En el transporte aéreo, Reino Unido y Alemania registran fuertes descensos, solo mitigados por el incremente en visitantes del conjunto de terceros países europeos.*

EAE aukeratu duten turistak, bizilekuaren arabera. 2005-2007 urteetako bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por lugar de residencia. Evolución anual 2005-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Gipuzkoa da Euskadira datozen atzerritar turista gehien hartzen duen lurraldea. Haren nagusigoaren arrazoi nagusia hauxe da: ugariena den eta distantzia labur edo ertainetik datorren frantses turistak, hain zuzen, lurralde historiko horretarako joera duela. Gainerako herrialdeetatik datozenek Gipuzkoarako edo Bizkairako joera dute. Horien artetik, britainiarrak nabarmentzen dira, Gipuzkoarako baino Bizkairako joera handiagoxearekin.

Europaz kanpotik datorren distantzia luzeko turismoak, orobat, Gipuzkoara jotzen du argiro.

Araban, portugaldarren proportzioa baizik ez da nabarmena; ondorioz, oporretako, aisiako edo kulturako turismoak pisu txikiagoa du Arabako eskarian, laneko turismoaren edo iragaiteen aldean.

Frantses turismoa da nagusi hiru lurraldeetan, baina areago Gipuzkoan, non gaualdi eta guzti eginiko atzerritar bisiten erdiak baino gehiago Frantziakoak diren; gainerako lurraldeetan, herena inguru dira. Frantsesez bestekoen osaketa, ordea, nabarmen ezberdina da Araban (Portugaldik eta nagusiak ez diren europar herrialdeetatik datozenei lotuta baitago) eta Bizkaian (jatorrien banaketa oso barreiatua baitu, britainiarren eta alemaniarren presentzia handiarekin).

Errepidez iristen den atzerritar turistak, Euskadi bisitatzean, hirietarako joera nabaria izaten du; funtsean, hiriburuetarako joera. Hiriburuez at, bisitari asko jasotzen dute mugako eskualdeetan, Gipuzkoako kostako herrietan (Zarautz, batik bat), eta neurri txikiagoan, Gipuzkoako eta Bizkaiko barnealdeko zenbait herritan.

*Gipuzkoa es el territorio principal en la acogida de turistas extranjeros en Euskadi. Su dominio se sustenta principalmente en la predisposición por este territorio histórico del dominante turista francés, en un contexto de visita de corta media distancia. El resto de orígenes muestra una disposición a repartirse bien por este territorio, bien por Bizkaia. Destaca entre ellos el británico, con cierta predisposición superior por Bizkaia que por Gipuzkoa.*

*El turismo de larga distancia, no europeo, también se decanta claramente por el territorio guipuzcoano.*

*Álava solo recoge una proporción considerable entre los portugueses, y sufre la consecuencia de un menor peso del turismo vacacional, de ocio o cultural frente al laboral y los tránsitos en su demanda.*

*El turismo francés domina en los tres territorios, pero lo hace más en Gipuzkoa, donde supone más de la mitad de las visitas con pernoctación extranjeras, que en el resto, donde ronda el tercio de ellas. La composición del restante es, no obstante, manifiestamente diferente en Álava, vinculado a originarios de Portugal y países europeos no principales, y Bizkaia, con una distribución de orígenes muy dispersa y presencia británica y alemana considerable.*

*El turista extranjero que llega por carretera exhibe en sus visitas al País Vasco una franca inclinación urbanita, esencialmente capitalina. Fuera de éstas, las visitas se dan frecuentemente en las comarcas fronterizas, en municipios de la costa guipuzcoana, entre los que destaca Zarautz, y, en menos ocasiones ya, en algunos municipios del interior guipuzcoano y vizcaíno.*



Errepidez iritsitako turistek aukeratutako lurralde historikoak, bizilekuaren arabera 2007
*Territorios Históricos de destino de los turistas por carretera según sus lugares de residencia 2007*

| % horizontala / *% horitontal* | Guztira / *Total* | Araba / *Álava* | Gipuzkoa | Bizkaia |
|---|---|---|---|---|
| Frantzia / *Francia* | 100% | 5,5% | 71,5% | 22,9% |
| Erresuma Batua / *Reino Unido* | 100% | 3,1% | 46,9% | 50,0% |
| Alemania / *Alemania* | 100% | 6,1% | 54,3% | 39,7% |
| Italia / *Italia* | 100% | 4,4% | 52,6% | 43,0% |
| Portugal / *Portugal* | 100% | 19,4% | 45,5% | 35,1% |
| Europako gainerakoak / *Resto de Europa* | 100% | 9,7% | 51,6% | 38,7% |
| Beste herrialde batzuk / *Otros países* | 100% | 4,4% | 60,7% | 34,9% |

| % bertikala / *% vertical* | Guztira / *Total* | Araba / *Álava* | Gipuzkoa | Bizkaia |
|---|---|---|---|---|
| Frantzia / *Francia* | 45,1% | 35,8% | 52,9% | 32,2% |
| Erresuma Batua / *Reino Unido* | 7,4% | 3,3% | 5,7% | 11,5% |
| Alemania / *Alemania* | 8,2% | 7,1% | 7,3% | 10,1% |
| Italia / *Italia* | 5,6% | 3,5% | 4,8% | 7,5% |
| Portugal / *Portugal* | 7,8% | 21,8% | 5,8% | 8,5% |
| Europako gainerakoak / *Resto de Europa* | 15,7% | 21,9% | 13,3% | 18,9% |
| Beste herrialde batzuk / *Otros países* | 10,3% | 6,5% | 10,2% | 11,2% |
| Guztira / *Total* | 100% | 100% | 100% | 100% |

**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Donostia da jaun eta jabe, beste edozein tokiren gainetik eta, bereziki, beste hirien gainetik. Nagusitasun hori, hein handi batean, ondorego turista-mota hau gailentzen delako gertatzen da: hiriko turista, batik bat frantsesa, distantzia ertainetik etorrita errepidez iristen dena, eredu horrek berezko duen egonaldi laburra egiteko. Dena dela, ia bidaiari guztietan gertatzen da Donostiaren hegemonia hori, baina jatorriaren arabera maila handiago edo txikiagoan. Bisita-kopuru askoz txikiagoa duen arren, Bilbo da bigarren aukera, eta Portugalen bizi diren turisten artean gainetik ere ageri da.

Atzerritar turistek Euskadin barreiatzeko dituzten aukeren adierazgarri da Frantziako turismoa, aisiako nahiz negozioetako turismoaren aldetik. Donostia, bereziki, eta Bilbo dira helmuga nagusi-nagusiak. Bi puntu horietatik inguruetara zabaltzen da turismoa, baina Gipuzkoaren kasuan, baliteke arrazoia hau izatea: hala mugako eskualdeak, nola Gipuzkoako kosta osoa, berez, erakargarriak direla turismorako. Gasteiz, Gipuzkoako barnealdea eta Arabako Errioxa dira Frantzian bizi diren turistak erakartzeko gaitasuna duten beste helmugak.

*El dominio de Donostia-San Sebastián sobre cualquier otro punto de la geografía, y particularmente sobre el resto de ciudades, depende en buena medida de la hegemonía de un turista de ciudad, principalmente francés, y que accede por carretera desde distancias medias y para estancias cortas, propias de este modelo. En todo caso, esta hegemonía de Donostia es una constante para casi todos los viajeros, aunque se da de un modo desigual por origen. Aunque alejado en volumen de visitas, Bilbao es el contrapunto a esta primera elección, situándose incluso por encima entre los turistas con residencia en Portugal.*

*El turismo francés resulta representativo de las posibilidades de dispersión del turismo extranjero en Euskadi, en sus distintas vertientes de ocio y negocio. Donostia, principalmente, y Bilbao, son destinos muy destacados. Ambos puntos presentan una irradiación importante hacias sus entornos, aunque en el caso guipuzcoano puede responder más bien al potencial de atracción turístico propio tanto de las comarcas fronterizas como, en general, del conjunto de la costa guipuzcoana. Vitoria-Gasteiz, el interior guipuzcoano y La Rioja alavesa completan los destinos con capacidad de atracción de turistas residentes en Francia.*

## Errepidez etortzen diren turista atzerritarren mapa geografikoak
## *Mapas geográficos de los turistas extranjeros que entran por carretera*




Frantzian bizi direnak
*Residentes en Francia*

| | |
|---|---|
| 152.398 | (1) |
| 67.076 | (1) |
| 10.000 - 50.000 | (4) |
| 1.000 - 10.000 | (11) |
| 0 - 1.000 | (32) |
| Bat ere ez - *Ninguno* | (206) |




Erresuma Batuan bizi direnak
*Residentes en Gran Bretaña*

| | |
|---|---|
| 13.178 | (1) |
| 3.652 | (1) |
| 1.000 - 3.000 | (2) |
| 0 - 1.000 | (3) |
| Bat ere ez - *Ninguno* | (248) |




Italian bizi direnak
*Residentes en Italia*

| | |
|---|---|
| 10.052 | (1) |
| 5.919 | (1) |
| 1.580 | (1) |
| 0 - 500 | (12) |
| Bat ere ez - *Ninguno* | (240) |




Alemanian bizi direnak
*Residentes en Alemania*

| | |
|---|---|
| 19.415 | (1) |
| 3.636 | (1) |
| 2.955 | (1) |
| 1.000 - 2.000 | (2) |
| 0 - 1.000 | (12) |
| Bat ere ez - *Ninguno* | (238) |




Portugalen bizi direnak
*Residentes en Portugal*

| | |
|---|---|
| 17.842 | (1) |
| 13.525 | (1) |
| 7.000 - 13.000 | (2) |
| 2.000 - 7.000 | (2) |
| 0 - 2.000 | (7) |
| Bat ere ez - *Ninguno* | (242) |




Europako beste herrialdetan bizi direnak
*Residentes en Resto Europa*

| | |
|---|---|
| 32.556 | (1) |
| 17.541 | (1) |
| 5.000 - 11.000 | (2) |
| 1.000 - 5.000 | (3) |
| 0 - 1.000 | (11) |
| Bat ere ez - *Ninguno* | (237) |




Beste herrialdetan bizi direnak
*Residentes en Otros países*

| | |
|---|---|
| 26.825 | (1) |
| 5.014 | (1) |
| 1.000 - 5.000 | (4) |
| 0 - 1.000 | (5) |
| Bat ere ez - *Ninguno* | (244) |

**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Gainerako jatorrietakoen ezaugarri nagusia da lurralde-barreiatze txikiagoa dutela, eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, Donostia gailentzen zaiola beste edozein helmugari.

Britainiarrek, alemanek eta Europaz kanpokoek dute joera handiena Donostiarako. Joera handia dute, gainera, muga-ingurunerako, zehazki Hondarribirako, britainiarrei eta Europaz kanpokoei dagokienez, eta Irunerako, alemaniarrei dagokienez. Bilbo da hirugarren dibertsifikazio-ardatza, jatorri horietakoen artean.

Italiarrek eta bigarren mailako pisua duten europarren multzoak Donostia dute halaber helmuga nagusi, baina horien artean Bilbok protagonismo hurbilagoa du. Europaz kanpokoek bezala, kostara barreiatzen dira: Zarautza eta Hondarribira Gipuzkoan, eta Mundakara, Lekeitiora, Bermeora eta Eara Bizkaian. Barreiatze hori askoz handiagoa da Gipuzkoako udalerrietan.

Portugaldarrak dira joera horietatik gehien aldentzen direnak. Bilbo da haien lehen aukera, Donostiaren gainetik; eta Gasteiz ere helmugatzat hartu ohi dute maiz. «Beste europarrek» ere badute joera hori.

Esan dugunez, Donostia gainerako udalerriei gailentzen zaie. Hiriko aisiako turismoa egiteko gune nagusi izateko gai delako izango da hori beharbada; edo Donostiak hainbat bisita-mota uztartzeko gaitasuna duelako, adibidez bereganatu egiten dituelako kostako nahiz barrualdeko beste herri batzuetara joan zitekeen aisiako eskaria eta negozioko beste eskari batzuk (bertakoak eta ingurune hurbilekoak). Bilbok ere badu gaitasun hori, aisiako kultura-ereduak eta negozioek eragindako bisita- ereduak uztartuz; gainera, ia helmuga bakarra da airez eginiko joan-etorri lasterretarako. Hainbat bisita-eredu uztartzeko gai izan daitezke, orobat, Gasteiz —bere inguru guztian erreferentzia-puntu baita, negozioetako nahiz aisiako turismorako— eta Frantziarekiko mugan dagoen eskualdea —kostaldeko aisia-ereduak eta iragaite nahiz ibilbidekoak batu baititzake—.



*El principal rasgo del resto de orígenes es su menor dispersión territorial y, con mayor o menor intensidad, la primacía de Donostia sobre cualquier otro destino.*

*Británicos, alemanes y no europeos son los que muestran mayor preferencia por Donostia. Añaden una cierta, importante, predisposición hacia el entorno fronterizo, concretamente por Hondarribia en los casos británico y no europeo, y por Irún, en los alemanes. Bilbao se configura como el tercer eje de diversificación de estos orígenes.*

*Italianos y el conjunto de europeos de peso secundario comparten el dominio de Donostia como destino preferente, pero Bilbao cuenta para ellos con un protagonismo más cercano. Con los no europeos, comparten una cierta dispersión costera, a Zarautz, además de Hondarribia, en Gipuzkoa, y Mundaka, Lekeitio, Bermeo y Ea en Bizkaia. Esta dispersión es mucho más importante en los municipios guipuzcoanos.*

*Los portugueses son quienes en mayor medida se desmarcan de estas tendencias. Bilbao es su primera opción, por encima de Donostia, mientras que Vitoria-Gasteiz se configura también entre ellos como un destino muy frecuente. Los «otros europeos» comparten esta afinidad.*

*El dominio de Donostia sobre otros municipios puede bien venir determinado por su capacidad para constituirse como centro neurálgico para el turismo de ocio de ciudad, como también por su capacidad de aunar modelos diferentes de visita, absorbiendo por ejemplo una demanda de ocio que bien podría dirigirse a otras localidades costeras o de interior, así como otras de negocios propia y de su entorno inmediato. Bilbao comparte en parte esta capacidad, aunando modelos culturales de ocio y modelos de visita por negocio, además de presentarse como destino casi único para los intercambios rápidos por vía aérea. Otros puntos susceptibles de integrar modelos de visita diferentes son Vitoria-Gasteiz, punto de referencia para todo su entorno tanto para negocio como para ocio, o la comarca fronteriza con Francia, donde pueden conjugarse modelos de ocio costero y en tránsito y ruta.*

## Bidaiaren arrazoia
## *Motivo del viaje*

EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren arabera. 2005-2007 urteetako bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje. Evolución anual 2005-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Atzerritar turismorik gehiena —guztizkoaren 2/3 ere— aisian oinarrituriko ereduei jarraituz dator Euskadira. Gainerakoa, negozio- eta ikasketa-arrazoien eta arrazoi pertsonalen artean banatzen da. Ezaugarri orokor horietatik at, Euskadira etortzeko arrazoiak gutxi dira, eta turista gutxirenak.

Turista-fluxuak 2007aren erdialdetik aurrera nozituriko krisialdiak aisiagatiko eta negozioagatiko ekarpenei eragin die, baina ez, ordea, arrazoi pertsonalek —hala nola osasunak edo familia bisitatzeak— eragindakoari. Ondorioz, handitu egin da azken horien garrantzi erlatiboa, Euskadin egindako egonaldi guztien artean, negozioengatik egindako bisita kopurutik hurbil izateraino.

*El grueso del turismo extranjero, hasta 2/3 del total, accede a Euskadi bajo modelos fundamentados en el ocio. El resto se reparte entre motivos de negocio y estudios y motivos personales. Más allá de estos rasgos generales, las motivaciones para ir a Euskadi son escasas y de carácter residual.*

*La crisis sufrida en el flujo de turistas a partir de la mitad de 2007 ha afectado a los aportes por ocio y por negocio, pero no así a aquel fundamentado en los motivos personales, como la salud o la visita familiar. Como consecuencia, ha aumentado el peso relativo de estos últimos en el conjunto de estancias en Euskadi, hasta situarse cerca del volumen de visitas generadas por motivos de negocio.*

EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren arabera. Hilen arteko bilakaera 2005-2007
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje. Evolución mensual 2005-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskadira datorren turismoaren ezaugarri berezienetako bat da, urte-sasoikakoa dela oso. Ezaugarri hori ez da aisiako edo oporretako turismoarena soilik, baizik eta arrazoi pertsonalengatik egindako turismoari (uztailean du lehentasunezko gailurra, oporretakoak bezala abuztuan izan beharrean) eta bestelako arrazoiengatik eginiko turismoari ere eragiten die.

Aisiako arrazoiek hiru aldiko denboraldia sortzen dute: uda, udazken-udazkenak (batez ere Aste Santua) eta negua. Arrazoi pertsonalek badituzte gehikuntza txikiak abenduan ere.

Lanagatik, negozioengatik edo ikasketengatik eginiko turismoaren ereduek, aldiz, ausaz barreiatuta daude denboran, eta gainera nabarmenki irregularrak dira hilez hil. 2007an, ekarpenik handienak urteko lehen sei hilabetean ageri dira, apirilean izan ezik.

Turismo-eskariak arrazoiaren arabera dituen egiturek antzeko eredu bati jarraitzen diete Euskadin eta Estatuan. Oinarri hau du: aisiagatiko bisiten nagusigo garbia; hurrena —oso atzetik—, negozio-bisitak datoz; eta, hirugarrenik, familia-arrazoiek eta arrazoi pertsonalek eragindako bisitak. Oso urriak dira bestelako arrazoiengatikoak.

Dena dela, antzekotasun hori ez da osoa, eta eskari horren alderdi oinarrikoenei dagokie. Izan ere, Estatuak aisiako turismoranzko joera erabatekoa ageri du, eta hori eguzki- eta hondartza-eskaintzara emandako turismo-eskari jakin batzuen existentziaren isla besterik ez da. Eskaintza horrek ez du batere potentzial handirik Euskadin, ez baitu halako turismo-azpiegiturarik, ez eta, beharbada, eredu horrek berezko dituen zenbait ezaugarri —hala nola klima— ere.

*Uno de los rasgos más característicos del turismo que recala en Euskadi es su alto grado de estacionalidad. Es un rasgo que no solo afecta al turismo por ocio o vacacional, sino al que contribuyen también tanto el turismo realizado por motivos personales, con pico preferente en julio en vez de en agosto como sucede con el vacacional, como en el turismo realizado por otros motivos.*

*Los motivos de ocio provocan una triple temporada: verano, primavera-otoño, con especial incidencia de la semana santa, e invierno. Los motivos personales generan pequeños incrementos también en diciembre.*

*Los modelos de turismo por trabajo, negocios o estudios presentan, en cambio, una dispersión aleatoria en el tiempo, siendo además marcadamente irregular mes a mes. En 2007 presenta las aportaciones superiores a lo largo de los seis primeros meses del año, con la excepción de abril.*

*La estructuras por motivo de la demanda turística tanto en Euskadi como en el estado siguen un patrón similar, fundamentado en el predominio claro de las visitas por ocio, seguidas a distancia por las visitas de negocio y, en tercer lugar, por las provocadas por los motivos familiares y personales, con otros motivos como motivación ya residual.*

*Con todo, esta similitud no es completa, y se refiere a los aspectos más básicos de esta demanda. De hecho, el estado muestra una extrema orientación hacia el turismo de ocio que no es sino reflejo de la existencia de ciertas demandas turísticas, volcadas en una oferta de sol y playa, de escaso potencial en el caso vasco, carente tanto de tales infraestructuras turísticas como, quizás, de ciertos rasgos consustanciales al modelo como el clima.*

EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren arabera.
Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko konparazioa 2005 -2007
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje.*
*Comparación Estado-C.A. País Vasco 2005-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren eta garraiobidearen arabera. 2004-2007 urteetako bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje y modo de transporte. Evolución anual 2004-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Ohituraz, negozioen pisua handia izan da Euskadira datorren turismoan, turismo-eskaintzaren zati handi bat horretara bideratzeraino. Egun, horren pisua %20tik behera dabil, baina hala ere Estatu osoan baino bi halako da Euskadin duen garrantzia. Horretan badu zerikusirik Euskadiko industria-egituraren bizitasunak, eta batik bat aisia, eguzkia eta hondartza eskatzen duten eredurik ez izateak.

Antzera gertatzen da aisia pertsonaleko ereduekin ere. Euskadik badu osasuneko aisiako eskaintzarik; eskaintza hori indarra hartzen ari da, eta ohiturazko bezeroak finkatzen ari da. Mugan dagoenez, eta kokagune horren izaera iragazgarria eta ia eskualdekoa denez, arrazoi pertsonalengatiko turismo-fluxuak ere eragiten ditu. Bi faktore horiek esplikatzen dute, zati batean, Euskadin arrazoi horren pisua Espainian duenaren bi halako izatea. Dena dela, pisu handi horretan badu zerikusia, orobat aisia masiboko eredurik ezak.

Hala ere, atsedeneko, hiriko, kulturako edo naturako aisiako opor-ereduen eskaintza aski da eskariak bere ekarpenean askoz bizitasun handiagoa erakusteko, gainerako arrazoiek batuta erakusten dutena baino.

Errepidez eta aireportuz etortzen direnen motibazio-ereduek oinarrizko antzekotasun bat erakusten dute: aisia da nagusi, beste edozein motibazioren gainetik. Antzekotasun hori, ordea, berria da; izan ere, aireportuko turismoaren bilakaerak eragin du, aisian finkatu baita bi urte lehenagotik (negozioagatiko bisitak ziren nagusi, aurrez). Halaxe izaten jarraitzen du, nahiz eta aireportuko turistei dagokienez bidaiari-fluxuaren krisialdiak gogorrago jo duen aisiako bidaiarien artean, negoziokoen artean baino.

*Tradicionalmente, el peso de los negocios en el turismo que recala en Euskadi ha sido importante, hasta el punto de orientar una parte importante de la oferta turística en ese sentido. Hoy su peso se sitúa por debajo del 20%, representando aún así el doble de su afectación en el conjunto del estado. En ello tiene que ver la vitalidad del tejido industrial vasco tanto como la ausencia de modelos de demanda masiva de ocio, de sol y playa principalmente.*

*Algo similar sucede con los modelos de ocio personal. Euskadi cuenta con cierta oferta de ocio de salud que cobra vitalidad a la vez que asienta una clientela tradicional. Su situación fronteriza y el carácter permeable y cuasi comarcal de ésta también es fundamento de flujos turísticos por motivos personales, explicando en parte ambos factores que en Euskadi se doble el peso que esta motivación tiene en España. No obstante, este elevado peso también tiene que ver con la ausencia de modelos de ocio masivo.*

*Aún así, la oferta de modelos vacacionales de ocio de descanso, de ciudad, cultural o de naturaleza basta para que la demanda muestre una vitalidad en su aportación muy superior a la mostrada por el resto de motivos tomados conjuntamente.*

*Los modelos motivacionales de los entrantes por carretera y por aeropuerto muestran una similitud básica, el predominio del ocio sobre cualquier otra motivación. Esta similitud es sin embargo novedosa, ya que viene dada por la evolución del turismo aeroportuario que se afianza en el ocio desde apenas dos años atrás frente al previo dominio de las visitas por negocio. Sigue siendo así aún cuando la crisis en el flujo de viajeros entre los turistas aeroportuarios ha calado más entre los viajeros de ocio que entre los de negocio.*

EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren eta bizilekuaren arabera 2007
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje y lugar de residencia 2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Dena dela, errepidez datorren turismoa askoz gehiago finkatu da aisian, aireportuz datorrena baino, nahiz eta arrazoi pertsonaletarako joera ere baduen, aireportuzkoak ez bezala. Azken hori, gehienbat, aisiako eta negozioko arrazoien artean dago banatuta.

Turista guztien artean komuna eta nahiko homogeneoa da aisiarako joera, jatorriaren arabera, baina badira bi aldaera garrantzitsu. Britainiarren artean joera hori muturrekoa da; eta, aitzitik, portugesen artean, aisiagatik baino gehiago negozioengatik etortzen dira. Frantsesen artean, gainera, aipatzekoa da arrazoi pertsonalek eragindako bisiten ugaritasuna, negozioek edo ikasketek eragindakoak baino gehiago baitira.

*Con todo, el turismo que recala por carretera muestra un afianzamiento muy superior en el ocio que el procedente por aeropuerto, aún cuando también muestra predisposiciones personales de las que el aeroportuario carece. Este último se reparte en su mayor parte entre los motivos de ocio y de negocio.*

*La disposición del turismo hacia el ocio es común y relativamente homogénea por origen, con dos importantes variantes. Es extrema para los británicos, y, por el contrario, inversa para los portugueses, que acceden más por negocio. Entre los franceses destaca además la abundancia de motivaciones de carácter personal, que superan a las de negocio o estudios.*



## Egonaldiaren iraupena

## *Duración de la estancia*

Atzerriko turismo-eskarian, 2007an, egonaldi laburrek jarraitzen dute nagusi. Gutxi gorabehera %44k bi gau bitarteko egonaldiak egiten dituzte; beste %38k, 7 gaualdi bitarte egiten dituzte.

Aurreko urteetan, bigarren horiek —3 eta 7 gau bitartekoak— lehenengoei inguratzen ari zitzaizkien, pisu proportzionalean. Baina 2007an joera hori eten da, bi iraunaldi-eredu horiek garrantzia irabazi baitute, iraupen ertain edo luzeko egonaldien kontura; oro har, astebete baino gehiagoko egonaldien kontura.

Gaualdien egitura horren erabat bestelakoa da atzerritar turismoak Espainian duena, han 3 gautatik 7ra bitarteko egonaldiak baitira nagusi, eta bi aste bitarteko egonaldiek ere egonaldi laburrek baino askoz pisu handiagoa baitute han.

*La demanda turística extranjera sigue en 2007 dominada por las estancias muy cortas. Alrededor de un 44% realiza estancias de hasta 2 noches de duración, en tanto que otro 38% realiza hasta 7 pernoctaciones.*

*Si en años anteriores las segundas, las de duración entre 3 y 7 noches, parecían acercarse paulatinamente a las primeras en su peso proporcional, 2007 representa la interrupción de esta tendencia, en tanto que ambas duraciones tipo ganan peso a costa de las estancias de duración media-larga, en general respecto de las estancias de duración superior a la semana.*

*Esta estructura de pernoctación difiere radicalmente de la presentada por el turismo extranjero en España, dominada por las estancias de entre 3 y 7 noches, y en las que las estancias de duración de hasta dos semanas cuentan también con un peso muy superior a las cortas.*

EAE aukeratu duten turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. 2004-2007 urteetako bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por duración de la estancia. Evolución anual 2004-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko konparazioa 2004 -2007
*Turistas con destino en el País Vasco por duración de la estancia. Comparación Estado-C.A. País Vasco 2004-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Gaualdi-ereduak oso desberdinak dira, turistak Euskadira etortzeko darabilen moduaren arabera.

Airez etortzen direnek egonaldi luzeagoak egin ohi dituzte, lurreko bideetatik etortzen direnek baino. Lehenengoen artean, egonaldi gehienak 3 gautatik 7ra bitartekoak izaten dira, eta ohikoagoak izaten dira 7 gau baino gehiagoko egonaldiak 3 gau baino gutxiagokoak baino. Aitzitik, errepidez iritsitakoek, asteburuko bisitak edo antzekoak egin ohi dituzte —oso modu masiboan egin ere—, gehienez bi gau igarota.

Urtearen bigarren erdian nabari den bidaiari-gutxitzeak ez die berdin eragin errepidez datozen turistei eta aireportuz datozenei, egonaldien iraupenean.

Errepidez datozenen artean, egonaldi laburretan sumatzen da bisitari-gutxitzea. Oso jaitsiera handia da, 2004an erregistraturiko kopuruetara iristeraino, eta apenas arintzen den iraupen ertain eta luzeko egonaldien hazkunde txikiekin.

Aitzitik, aireportuzko turisten artean, 2 gau baino gehiagoko egonaldietan banatuta daude jaitsierak, eta bereziki handia da 3 gautatik 7ra bitarteko bisitaldietan erregistraturiko gutxitzea.

*Los patrones de pernoctación difieren ampliamente en función del acceso del turista.*

*La entrada aérea suele conllevar la realización de estancias más largas que las realizadas cuando se accede por vía terrestre. Mientras que entre los primeros la más abundantes tienen una duración de entre 3 y 7 noches, y son más habituales aquellas de más de 7 noches que las de menos de 3, entre los viajeros por carretera lo común, de modo muy masivo además, es una duración acorde con los aprovechamientos de fines de semana o similares, con dos noches como máximo.*

*La caída de viajeros percibida desde la segunda mitad del año afecta de modo diferente a los turistas que recalan por carretera y aeropuerto en la duración de sus estancias.*

*Entre los que acceden por carretera, la reducción de visitantes se percibe en las duraciones cortas. El descenso es muy importante, hasta llegar a los volúmenes registrados en 2004, y apenas se atenúa con pequeños crecimientos en las estancias de media y larga duración.*

*Por el contrario, entre los turistas aeroportuarios, los descensos se reparten en las estancias de duración superior a 2 noches, siendo particularmente importante el descenso registrado en visitas con duración comprendida entre las 3 y las 7 noches.*

EAE aukeratu duten turistak, egonaldiaren iraupenaren eta garraiobidearen arabera. 2004-2007 urteetako bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por duración de la estancia y modo de transporte. Evolución anual 2004-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

## Batez besteko egonaldia

## *Estancia media*

Egonaldiaren batez besteko iraupena asko aldatzen da, turistaren jatorria zein den.

Alemanek eta Europaz kanpoko turistek egiten dituzte iraupen luzeeneko egonaldiak: 13 gau ingurukoak. Beste muturrean, frantsesak —4 jardunaldi besterik ez, euren egonaldietan— eta bigarren mailako ekarpena dakarten Europako herrialdeetatik datozenak —6 gau baino gehixeago, batez beste— dira bisitaldi laburrenak egiten dituztenak.

*La duración media de la estancia difiere mucho en función del origen del turista.*

*Alemanes y turistas no europeos proporcionan las estancias de mayor duración, alrededor de 13 noches. En el lado contrario, franceses, con apenas 4 jornadas y los procedentes de países europeos de aporte secundario, con poco más de 6 noches medias, son los que realizan visitas más reducidas.*

EAE aukeratu duten turistak, batez besteko egonaldiaren eta bizilekuaren arabera 2007
*Turistas con destino en el País Vasco por estancia media y lugar de residencia 2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Aipatzekoa da, 2006aren aldean, portugaldarren batez besteko egonaldia luzatu dela, 5 gautakoa izatetik 10ekoa izatera igaro baita.

Egonaldien batez besteko iraupenak antzeko banaketa du Estatuan eta Euskadin. Estatuan, jatorrien arabera iraupenak duen barreiatzea arinagoa da, guztiak 6 gautatik 11ra bitartean baitira. Euskadin, tartea zabalagoa da goitik eta behetik, baina antzekoa da herrialdeen arteko joeren (gau gehiagoranzko edo gutxiagoranzko joerak) egitura.

Joera hausten dute Portugalgoek (Euskadin gau gehiago egiten baitute), Europako gainerako herrialdeetakoek eta frantsesek (gau gutxiago egiten baitute Euskadin, hona datorren turismoa iraupen labur eta ertainekoa eta hirikoa delako batik bat).

*Frente a 2007, destaca el incremento de noches medias, 5 a 10, de los portugueses.*

*La duración media de las estancias sigue una distribución similar en el estado y en Euskadi. En el estado, la dispersión de la duración por orígenes es más tenue, situándose todos ellos entre las 6 y las 11 noches. En Euskadi, el rango se amplía por encima y por debajo, pero con una estructura de tendencias (más o menos noches) entre los países similar.*

*La rompen portugueses, con más noches en Euskadi, y restoeuropeos y franceses, con menos, en este caso como efecto de su enclave en un turismo de corta y media distancia, de ciudad.*

EAE aukeratu duten turistak, batez besteko egonaldiaren eta bizilekuaren arabera. Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko konparazioa 2007
*Turistas con destino en el País Vasco por estancia media y lugar de residencia. Comparación Estado-C.A. País Vasco 2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Hegazkinez etortzea, egonaldien iraupen luzeagoari lotu ohi zaio. Arau hori betetzen da kasu guztietan, salbu britainiarrenean eta, bereziki, alemaniarrenean.

Turismo-egonaldiko eredu ezberdinak agertzen dira jatorrietan, errepidez etorri ala hegazkinez etorri.

*La procedencia en avión suele ligarse a una duración de las estancias superior. Esta regla se cumple en todos los casos excepto británicos y, especialmente, alemanes.*

*Los diferentes modelos de estancia turística se hacen patentes en las procedencias según la utilización de la carretera o el avión para el acceso.*

EAE aukeratu duten turistak, batez besteko egonaldiaren, bizilekuaren eta garraiobidearen arabera 2007
*Turistas con destino en el País Vasco por estancia media, lugar de residencia y modo de transporte 2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Adibidez, alde batetik, hiriko edo ibilbideko turismoaren ereduak bereizten dira, iraupen laburrekoak; eta, bestetik, berariazko opor-egonaldiko ereduak, iraupen luzeagokoak. Frantzia, aipatu gabeko Europako herrialdeak eta Europaz kanpokoak dira horren adibide.

*Diferencian por ejemplo, modelos de turismo de ciudad o de ruta, de duraciones cortas, de modelos de estancia vacacional específica, de duración más elevada. Francia o el conjunto de países europeos no mencionados o no europeos construyen ejemplo de ello.*

EAE aukeratu duten turistak, ostatu motaren arabera. 2004-2007 urteetako bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por tipo de alojamiento. Evolución anual 2004-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, ostatu motaren eta garraiobideraren arabera. 2004-2007 urteetako bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por tipo de alojamiento y modo de transporte. Evolución anual 2004-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

## Ostatu-mota

## *Tipo de alojamiento*

Hotel-sistema da nagusi, atzerritar turistak hartzean. Eta areago, turista airez baldin badator.

Hala ere, ostatu-mota horrexek nozitu du 2007an turismo-fluxuek izandako beherakada ia osoa.

Bi taldeen bilakaera ez da berdina izan. Hoteletako turisten gutxitzea, batez ere errepidez datozenen artean gertatu da, eta horien artean handitu egin da doako etxebizitzaren pisua. Aireportuz datozenen artean, berriz, beherakadak gehiago eragin die doako etxebizitzen erabiltzaileei.

Euskadiko eta Estatuko eskarien ostatu-egitura antzekoa da, handizka: hotela da nagusi, eta espazio handia dago doako etxebizitzaren erabilerarako. Ezberdintasunen aldetik, Euskadiko eskariak oso mendekotasun txikia dio alokairuari, eta askoz handiagoa hirugarren ostatu-motei. Hainbat urtez Euskadiko hotelen pisua pixkanaka Espainiakoarenei inguratuz joan eta gero, 2007an aldatu egin da joera. Bezero galerak areago eragin dio hotel-sistemari, eta ondorioz handitu egin da doako etxebizitzaren eta gainerako ostatu-moten pisua.

*El sistema hotelero prima en la recepción de turistas extranjeros. Ello es más cierto aún si el turista accede vía aérea.*

*No obstante, es también el tipo de alojamiento que sufre prácticamente toda la caída de flujos turísticos registrada en 2007.*

*La evolución de ambos colectivos ha sido diferente. El descenso de turistas hoteleros se da principalmente con acceso por carretera, aumentando al peso de la vivienda gratuita entre ellos. En cambio, por aeropuerto el descenso ha afectado más a los usuarios de vivienda gratuita.*

*La estructura de las demandas vasca y estatal en cuanto al alojamiento es similar a grandes rasgos: predominio del hotel y espacio elevado para el uso de la vivienda gratuita. Entre las diferencias, Euskadi muestra una demanda muy poco dependiente del alquiler, y una muy superior con terceros alojamientos. Después de varios años de progresivo acercamiento del peso del sistema hotelero vasco al español, 2007 marca un cambio de tendencia. La pérdida de clientes, que afecta más al sistema hotelero, se refleja en un aumento de peso de la vivienda gratuita y los otros alojamientos.*



EAE aukeratu duten turistak, ostatu motaren arabera.
Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko konparazioa 2004-2007
*Turistas con destino en el País Vasco por tipo de alojamiento.*
*Comparación Estado-C.A. País Vasco 2004-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, ostatu motaren eta bizilekuaren arabera 2007
*Turistas con destino en el País Vasco por tipo de alojamiento y lugar de residencia 2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.




Hotel-sisteman ostatatzea da aukera nagusia, jatorri guztietako atzerritar turistarentzat. Hala ere, nagusigo horren barruan, aniztasun nabarmena ageri da, jatorriaren arabera. Hotelak gutxien erabiltzen dituztenak turista alemanak eta frantsesak dira, %55 baino gehixeagok jotzen baitute hoteletara. Portugesek eta britainiarrek hotel-sistemaranzko joera nagusi neurritsua dute, turista horien %60 ingururekin.

Jatorri urrunenak hotel-sistemaren erabilera handiagoari daude lotuta. Hartara, bigarren mailako ekarpena duten Europako herrialdeetatik datozenen artean eta, bereziki, Europaz kanpokoen artean, ostatu-mota horretara joaten dira hiru laurdenak. Italiarrak ere halaxe dabiltza, urtez urte hoteletan ostatu hartzeko joera berezia erakusten baitute.

Doako etxebizitzaz den bezainbatean, jatorri guztietako eskarian pisu nabarmena du, portugesen eta italiarren artean izan ezik.

Etxebizitza alokatua oso urria da, Euskadira datozen atzerritar turisten ostatu-egituran. Gehien erabiltzen dutenak portugesak dira, beste ostatuetarantz dutena baino ehuneko handiagoan izan ere. Britainiarrak, urtebete lehenago joera hori zuten arren, jadanik ez dira nabarmentzen alde horretatik.

Frantzia jatorri nagusia izaki, frantsesak dira nagusi ostatu-mota guztietan, etxebizitza alokatuaren eskaintza urrian izan ezik. Frantsesak argi eta garbi dira nagusi ostatu-mota guztietan, baina bereziki kanpinen erabiltzaileen artean eta «bestelako ostatuak» multzoaren barruan, horietan erabiltzaileen bi heren baino gehiago ere baitira. Gainera, Frantzia da doako etxebizitzetarako baino horietarako joera handiagoa erakusten duen jatorri bakarra. Orobat, horietarako joera erlatibo handia dute bigarren mailako ekarpena duten Europako herrialdeetatik datozenek.

*El alojamiento en el sistema hotelero constituye la opción dominante del turista extranjero para todo origen, si bien este predominio muestra una diversidad considerable de acuerdo a la procedencia. Los porcentajes más escasos de disposición hotelera, poco más del 55% de los turistas, vienen dados por alemanes y franceses. Portugueses y británicos cierran el grupo de la orientación dominante-moderada hacia el sistema hotelero, con alrededor de un 60% del montante de su turismo.*

*Los orígenes más alejados se asocian con un uso más intensivo del sistema hotelero. Así, el conjunto de los originarios de países europeos de aportación secundaria y, especialmente, los no europeos, se dirigen en hasta 3/4 partes hacia este tipo de alojamiento. A ellos se añaden los italianos, que año tras año manifiestan también una particular inclinación hacia el alojamiento hotelero.*

*En cuanto a la vivienda gratuita, muestra un peso significativo en la demanda de todos los orígenes, con la excepción del portugués e italiano.*

*La vivienda alquilada es poco común en la estructura de alojamiento del turismo extranjero que recala en Euskadi. Los que más uso hacen de ellas son los portugueses, en una proporción superior incluso con la que se disponen hacia los otros alojamientos. Los británicos, que un año antes mostraban tal orientación, ya no destacan en este respecto.*

*En tanto que origen dominante, el francés muestra supremacía en todos los tipos de establecimientos, excepto entre la escasamente significativa oferta de vivienda en alquiler. Lo hace de una manera clara en toda clase de ellos, si bien resulta particularmente dominante entre los usuarios de camping y la generalidad de los «otros alojamientos», de los que llega a componer más de 2/3 de sus usuarios. Además, son el único origen que muestra una predisposición mayor por ellos que por las viviendas de carácter gratuito. También se muestran relativamente dispuestos a ellos los originarios de países europeos de aportación secundaria.*

# EAE aukeratu duten txangolariak
# *Excursionistas con destino en el País Vasco*

## Garraiobidea
## *Modo de transporte*

Euskadi mugan dagoenez eta, zehazkiago, mugaren alde bien arteko harremanek eta elkartrukeek ia eskualde barrukotzat jokatzen dutenez, handia da txangozale jarduera. Gainera, turismo masiboko —adibidez, eguzki eta hondartzako turismoko— eskaintzarik ez denez, gaualdirik gabekoak dira atzerritarren 10 bisitatik 9. Donostia mugatik gertu egotea eta, batez ere, mugaren ondo-ondoan den hiri enklabe garrantzitsua, funtsezkoak dira merkataritza-, lan- eta aisia-harreman garrantzitsuak ezartzeko.

*El carácter fronterizo de Euskadi, y más concretamente el comportamiento cuasi comarcal de las relaciones e intercambios a ambos lados de la frontera, tiene como consecuencia una elevada actividad excursionista. Si a ello se añade la ausencia de una oferta de turismo masivo, como la de sol y playa, el resultado es que 9 de cada 10 visitas de extranjeros lo son sin pernoctación. La cercanía de Donostia a la frontera y, sobre todo, el importante enclave urbano existente al borde mismo de ésta, resultan claves para el establecimiento de importantes relaciones comerciales, laborales y de ocio.*

EAE aukeratu duten txangolariak, garraiobidearen arabera. Hilen arteko bilakaera 2005-2007
*Excursionistas con destino en el País Vasco por modo de transporte. Evolución mensual 2005-2007*

| | | Guztira / *Total* | Sarbidea / *Vía de acceso* | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Errepidea / *Carretera* | Airepotua / *Aeropuerto* |
| **Guztira/*Total*** | | 24.145.934 | 24.124.171 | 21.763 |
| 2005 | **Guztira/*Total*** | 7.901.937 | 7.893.200 | 8.737 |
| | Urtarrila/*Enero* | 546.292 | 545.973 | 319 |
| | Otsaila/*Febrero* | 494.319 | 493.853 | 466 |
| | Martxoa/*Marzo* | 578.557 | 577.727 | 830 |
| | Apirila/*Abril* | 609.414 | 608.190 | 1.224 |
| | Maiatza/*Mayo* | 727.431 | 726.991 | 440 |
| | Ekaina/*Junio* | 690.355 | 689.581 | 774 |
| | Uztaila/*Julio* | 778.829 | 777.970 | 859 |
| | Abuztua/*Agosto* | 1.040.732 | 1.038.822 | 1.910 |
| | Iraila/*Septiembre* | 652.928 | 652.098 | 830 |
| | Urria/*Octubre* | 654.047 | 653.691 | 356 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 512.528 | 512.211 | 317 |
| | Abendua/*Diciembre* | 616.506 | 616.094 | 412 |
| 2006 | **Guztira/*Total*** | 8.255.227 | 8.248.467 | 6.760 |
| | Urtarrila/*Enero* | 539.053 | 538.790 | 263 |
| | Otsaila/*Febrero* | 503.292 | 503.105 | 187 |
| | Martxoa/*Marzo* | 605.696 | 605.321 | 375 |
| | Apirila/*Abril* | 725.372 | 724.428 | 944 |
| | Maiatza/*Mayo* | 771.297 | 770.786 | 511 |
| | Ekaina/*Junio* | 594.211 | 593.593 | 618 |
| | Uztaila/*Julio* | 822.970 | 822.219 | 751 |
| | Abuztua/*Agosto* | 1.089.509 | 1.088.779 | 730 |
| | Iraila/*Septiembre* | 705.710 | 704.759 | 951 |
| | Urria/*Octubre* | 690.488 | 690.028 | 460 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 599.419 | 598.993 | 426 |
| | Abendua/*Diciembre* | 608.209 | 607.665 | 544 |
| 2007 | **Guztira/*Total*** | 7.988.770 | 7.982.504 | 6.266 |
| | Urtarrila/*Enero* | 529.910 | 529.689 | 221 |
| | Otsaila/*Febrero* | 505.885 | 505.793 | 92 |
| | Martxoa/*Marzo* | 633.601 | 633.047 | 554 |
| | Apirila/*Abril* | 732.458 | 731.978 | 480 |
| | Maiatza/*Mayo* | 622.158 | 621.595 | 563 |
| | Ekaina/*Junio* | 707.157 | 706.560 | 597 |
| | Uztaila/*Julio* | 820.165 | 819.345 | 820 |
| | Abuztua/*Agosto* | 1.127.404 | 1.126.521 | 883 |
| | Iraila/*Septiembre* | 682.246 | 681.281 | 965 |
| | Urria/*Octubre* | 567.376 | 567.051 | 325 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 531.820 | 531.540 | 280 |
| | Abendua/*Diciembre* | 528.591 | 528.105 | 486 |

**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

2007an, Euskadira 8.000.000 bat txangozale heldu dira. Horrenbestez, aurreko urteko kopuruaren %3 galdu da. Bisiten urritzea ez da inola ere homogeneoa urte osoan. Aitzitik, abuztu arte gehikuntza nabarmena (%14) erregistratu da, 2006aren aldean. Aipatzekoa da uda-sasoiko zifren gailurra, aurreko edozein unetakoa baino goragokoa.

Irailetik aurrera —bereziki, urteko azken urteetan— gertatu dira beherakada nabarmenenak. Joera hori ikusita, badirudi gerora ere gutxituko direla bisitariak.

Aisiak rol garrantzitsua du, nazioartekoak baino areago eskualdekoak diren elkartrukeen sare horretan. Horrek urte-sasoikako izaera ematen die bisitei, nahiz eta gaualdia duten bisiten artean bezain nabarmenki ez izan. Bisitak erruz ugaritzen dira udan, bereziki abuztuan, baina profil pixka bat txikiagoarekin baino ez udaberrian.

Airez edo lurrez egindako iragaite urriek, profil askotarikoagoa eman diete nazioarteko txangoei.

*En 2007 llegan a Euskadi alrededor de 8.000.000 de excursionistas. Ello supone la pérdida del 3% del volumen alcanzado el año anterior. La caída en las visitas no es en absoluto homogénea a lo largo del año. Por el contrario, hasta agosto se había registrado un importante incremento (14%) respecto a 2006, destacando un pico estacional veraniego superior al de cualquier otro momento anterior.*

*Es a partir de septiembre, particularmente en los tres meses finales del año, cuando se producen las caídas más significativas, en una tendencia que parece augurar posteriores reducciones en el número de visitantes.*

*El ocio tiene un papel importante en esta red de intercambios regionales más que internacionales, y ello da un carácter estacional a las visitas, aunque en absoluto de un modo tan marcado como sucede entre las visitas con pernoctación. Las visitas se disparan en verano, especialmente en agosto, pero con un perfil solo ligeramente inferior en primavera.*

*Algunos tránsitos, bien aéreos o terrestres, poco relevantes, dotan de un perfil más diverso a las excursiones internacionales.*

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangolariak. 2004-2007 urteetako bilakaera
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco. Evolución anual 2004-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangolariak. 2004-2007 urteetako bilakaera
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco. Evolución anual 2004-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangolariak, bizilekuaren arabera. 2004-2007 urteetako bilakaera
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por lugar de residencia. Evolución anual 2004-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

## Bisiten arrazoiak eta maiztasuna

## *Motivos y frecuencias de las visitas*

Erosketek eta aisiak eragiten dituzte Euskadira egindako txango gehienak. Batez ere erosketek; atzerritarrek Euskadira egindako 5 txangotatik 3tan, izan ere, erosketak dira arrazoi eragilea (beste arrazoi batzuk ere izatea alde batera utzita). Hala ere, 2007an, txangoak egitearren egindako bisitaldiek hautsi egin dute XXI. mende osoan urtero hazteko dinamika jarraitua. Horien krisia da bisitarien kopuru osoa gutxitzearen kausa nagusia. Dena dela, gutxitze hori eragiten lagundu du lanagatik egindako bisiten beherakadak ere. Aitzitik, aisiagatiko bisitak ugaritu egin dira 2007an. Aurreko urteetan bezala, aisiagatiko bisitek erosketengatiko bisiten kontrako jokabidea ageri dute.

*Compras y ocio explican la mayor parte de las llegadas excursionistas a Euskadi. Particularmente las primeras, que, como primer factor motivante y al margen de complementariedades en los motivos, explican cerca de 3 de cada 5 excursiones extranjeras en Euskadi. No obstante, en 2007 las visitas realizadas bajo el factor motivante de la realización de excursiones rompen con una dinámica de fuerte crecimiento anual constante a lo largo de todo el siglo XXI, configurándose su crisis como la principal causa en el decrecimiento general de visitantes. En todo caso, también contribuyen a este descenso las visitas realizadas por motivos de trabajo. Por el contrario, las visitas por ocio han aumentado durante 2007, haciendo notar, como a lo largo de los años anteriores, un comportamiento inverso al de las visitas por compras.*

Hala erosketek nola aisiak urte-sasoikako bisitak eragiten dituzte. Oporrengatiko gailurrak izaten dira Aste Santuan eta, batez ere, udan, oso gailur nabarmena baitute abuztuan.

Era berean, aisiak ez bezala, erosketek bisitak ugaritzea eragiten dute Eguberri garaian ere. Urte-sasoi horretan, urritu egiten dira aisiagatiko bisitak.

Ez dago urte-sasoikako banaketarik lanagatiko edo negozioengatiko bisitetan. Beraz, aipagarria da bisita horiek gutxitzeko joera dutela udazken-hasieraz geroztik.

Erosketengatik edo aisiagatik etortzen den bisitaria EAEn integratua dago nolabaiteko maiztasunarekin, egunero, astero edo hilero etortzen baita.

Harreman-mota horrek, hala ere, nolabaiteko krisia nozitu du 2007an. Izan ere, urte horretan txangoak bakanxeagoak izan dira 2006an baino.

Bisitaren maiztasunaren gutxitzea bereziki nabaria izan da asteroko bisiten artean. Hori da, bisitarien gutxitzea baino areago, txangoetan izandako beherakadaren arrazoi nagusia.

*Tanto las compras como el ocio inducen perfiles de visita marcadamente estacionales, con picos vacacionales durante la semana santa y, sobre todo, en verano, con un pico en agosto muy acusado.*

*Las compras se diferencian del ocio al provocar también un incremento en las visitas en épocas navideñas, momento en el que decaen las visitas por ocio.*

*No puede hablarse de estacionalidad en las visitas por trabajo o negocios, lo que hace que destaque su tendencia a la baja desde comienzos del otoño.*

*Compras y ocio generan un visitante integrado en la CAE en términos de cierta cotidianeidad, bien diaria, semanal o mensual.*

*Este modo de relación, no obstante, ha sufrido una cierta crisis en 2007, año en que se dibuja una excursión algo más esporádica que en 2006.*

*La caída de la frecuencia de visita ha sido particularmente acusada entre las de carácter semanal y es, antes que la caída de visitantes, la principal razón del declive en las excursiones.*

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangolariak, bisitaren arrazoiaren arabera. 2004-2007 urteetako bilakaera
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por motivo de la visita. Evolución anual 2004-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten txangolariak, bisitaren arrazoiaren arabera. Hilen arteko bilakaera 2007
*Excursionistas con destino en el País Vasco por motivo de la visita. Evolución mensual 2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangolariak, bisitaren maiztasunaren arabera. 2004-2007 urteetako bilakaera
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por frecuencia de la visita. Evolución anual 2004-2007*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Erlazio estua dago bisitaren arrazoi nagusien eta bisiten maiztasunaren artean.

Lana, ikasketak eta —neurri txikiagoan— familia-bisitak direnean arrazoia, bisita egunero egin ohi da. Horren arrazoietako bat da muga iragazkorra dela etxebizitza-merkatuari dagokionez.

Maila txikiagoan, osasun-tratamenduek eta erlijioak ere eragiten dituzte aski ohikoak diren bisitak: eguneroko maiztasunetik, hileroko maiztasuna bitartekoak, alegia.

*Los motivos principales de visita y las frecuencias en que estas se realizan muestran una íntima relación.*

*Trabajo, estudios y, ya en una medida inferior, visitas familiares, generan un tipo de visita absolutamente cotidiana, en parte consecuencia de la porosidad de la frontera con respecto al mercado de la vivienda.*

*En un orden inferior, tratamientos de salud y religión generan también visitas de una habitualidad considerable, entre diaria y mensual.*

Erosketek eragindako txangoen maiztasunak asterokotik hilerokora bitartekoak dira. Hala ere, aldaera anizkoitzak izaten dira txango horien maiztasunean, hala nola egunerokoak edo hiru hilean behingoak. Hiri arteko berehalakotasunak eta arintasunak eta nazioarteko abantailek dakarten merkataritza-harremanaz beste, erosketek urtero edo noizbehinkako hainbat bisita ere eragiten dute.

*Las compras se desarrollan en órdenes de relación entre semanales y mensuales, aunque admiten múltiples variantes en sus frecuencias, como las diarias o trimestrales. Fuera de un orden de relación comercial derivado de la combinación entre inmediatez y fluidez interurbana y las ventajas internacionales, las compras dan pie también a un cierto número de visitas de carácter anual o esporádico.*

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangolariak, bisitaren arrazoiaren eta maiztasunaren arabera 2007
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por motivo de la visita y frecuencia de la visita 2007*










**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Errepidez bidaiatzen duten txangolariek aukeratutako lekua. 2007
*Destino de los viajes de los excursionistas por carretera 2007*







**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.




Aisiagatiko bisitak harreman anizkoitzetan izaten dira. Horren kausak bi dira: batetik, euskal lurraldearekin lotura sendoak direla toki- eta eskualde-eremuan; bestetik, Euskadiko zenbait herrik duten erakarmena, maiztasun txikikoak baina egunerokoaz gaindiko eskualde-eremuko lurralde komunikazioko ingurune batekin bat datozenak.

Atzerritar txangozaleek Euskadiko lurraldean duten banaketa, estu lotzen zaio distantziari. Harremanak eta mugikortasuna eskualde-mailakoak izaten dira. EAEren aldetik, Donostiaraino ere irits daitezke; baina, ehunekotan, oso gutxi zabaltzen dira lurraldearen gainerako tokietara. Hiru laurden baino gehiago muga-herrietan gertatzen dira, Irunen bereziki; aldiz, Donostiaren erakarmenak eraginda, Donostialdea da gainerako bisita gehienen jomuga.

Bisiten parte handi bat, ondoko hiri ingurune onuragarriaren esparruan egiten dira. Izan ere, ingurune horrek, bere eskaintzan, berezko dituen merkataritza- eta aisia-abantailak ageri ditu (horri esker, lurraldeko buru edo behinik behin erreferentzia bihurtu da), eta, gainera, baditu beste abantaila batzuk ere, atzerritar bisitariak erakartzeko egokiak diren prezio-mailak dituela eta. Eskaintza askotarikoa eta indartsua, harreman-arlo bakoitzerako (erosketak, aisia…); eta, horrekin batera, distantzia egokia. Hartara, irradiazio-profila nabarmenagoa edo apalagoa izango da, baina ia beti Donostiak adierazitako topearen muga izanik.

Frantziarekin mugakide diren eskualdeetatik at, Bilbok baizik ez du erakarmen nolabait ere nabarmena, kopuru absolutuetan. Halaber txangozaleentzat erakargarri dira, baina jadanik urteko 25.000 bisitari baino gutxiagorekin, Gasteiz (Araba), Zestoa eta Azpeitia (Gi-

*Las visitas por ocio vienen dadas en órdenes de relación múltiples. Son consecuencia tanto de la existencia de fuertes vínculos con el territorio vasco, de índole local comarcal, como del potencial de atracción de algunas localidades vascas para generar visitas poco frecuentes pero acordes con un ámbito de comunicación territorial regional, superior al cotidiano.*

*El excursionismo extranjero muestra una distribución por el territorio vasco íntimamente ligada a la distancia. Su carácter viene dado fundamentalmente por un orden de relación y movilidad comarcal, que por el lado de la CAE se extiende hasta Donostia, pero que presenta muy poca irradiación hacia el resto del territorio en términos porcentuales. Más de ¾ partes se desarrolla en los municipios fronterizos, principalmente en Irún, mientras que Donostialdea, básicamente por el poder de atracción de Donostia-San Sebastián, es el receptor de la mayor parte restante.*

*Buena parte de las visitas se enmarcan en la plausibilidad de un entorno urbano inmediato que además de presentar en su oferta las ventajas comerciales y de ocio que le son propias, y que lo convierte de alguna manera en cabecera o al menos referencia territorial, añade otras derivadas de la existencia de niveles de precio ventajosos para la atracción de visitantes extranjeros. Variedad y fuerza de la oferta, para cada ámbito de relación (compras, ocio…), se combinan con la distancia para ofrecer un perfil de irradiación más o menos acusado, pero casi siempre limitado al tope señalado por Donostia.*

*Fuera de las comarcas limítrofes con Francia, solo Bilbao muestra un cierto poder de atracción significativo en términos absolutos, así como también,*

Errepidez bidaiatzen duten eta Euskal Autonomia Erkidegoa aukeratu duten txangolariek aukeratutako lekua, bisitaren arrazoiaren arabera 2007

*Destino de los viajes de los excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por motivo de la visita 2007*

























**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

puzkoako barrualdea), eta Orio, Zarautz eta Getaria (itsasbazterra); oro har, arrazoi nagusiarekin —erosketekin— zerikusirik ez duen beste arrazoiren batek eraginda etortzen dira herri horietara.

Atzerritar txangozaleak oso joera nabarmena du, edo muga-inguru mugakideak, edo Donostialdea bisitatzeko. Ondoko inguru murritz batean kontzentratzeko joera hori behin eta berriz ageri da, bisitaren arrazoi nagusia edozein dela ere. Hala ere, joera horretatik irten gabe, kontzentrazioa handiagoa edo txikiagoa izan daiteke, edo udalerri batzuei besteren gainetik lehentasuna eman, egonaldia eragin duten arrazoien arabera. Hala, aisiak eta lanak nolabaiteko barreiatzea sortu ohi dute, eta horren ondorioz bidaiariek udalerri askotara jotzen dute; osasun-tratamenduek, ikasketek eta —bereziki— erosketek, ordea, mugatik hurbileko eskualdeetara baizik ez dituzte biltzen bisitariak.

Txangozaleak, muga igarotzean, hurbileko ingurunea bilatzen du, eskualde-zentroak diren hiri-eremuak, merkataritzako eduki askotarikoen eta prezioen elkartze abantailatsua eskaintzen dutenak. Horregatik, Irun da gune gailena, erosketengatiko bisitetarako ez ezik, txangozale-jarduera osorako ere. Donostia da beste aukera garrantzitsu bat; beharbada, erosketa horietako batzuen izaeragatik, eta hirigune konplexuagoa denez eskaintzen duen espezializazioagatik.

Aisia mugako bi eskualdeetan metatzen da, baina askoz barreiatze handiagoa du. Donostia da eskaintzaren erakargarri nagusia; kasu horretan, Irun ere gainditua. Izan ere, aisiako txangozaletasunerako motibazio nagusiak biltzen ditu: hiriko turismoa, gastronomia, kultura-jarduera espezializatua, hurbiltasuna eta kosta. Kostarik hurbilena, Zumaiaraino, aktibo ageri da orobat. Hondarribia nabarmentzen da, itsasbazterreko gainerako udalerri txikien gainetik. Hiru polo horietatik landa, aukera nagusia Bilbo bisitatzea da; kultura-aisia oso espezializatua proposatzen duelako, segur aski. Barrualdeko inguruneetarantz ere bada irradiazio arin bat, Gasteizera heltzen dena.

Lan-motibazioek bi joera ezberdin azaltzen dituzte. Bata, zatirik handiena hartzen duena, Irunera doa batez ere, baina baita Donostiara eta eskualde osora ere. Etxebizitza kokatze aldera mugak duen iragazkortasunari lotzen zaio. Fenomeno horren eraginez, bada jendemultzo bat bizilekua Frantzian duena, baina EAEn lan egiten duena. Bestea, beharbada gutxienena, baina barreiatze handia duena; Bilbok eta Gipuzkoako barrualdeak bizitasun nabarmena ageri dute horretan, eta enpresa arteko kontaktuei lotzen zaie, garbiago. Nabarmentzen diren udalerriak: Azpeitia, Tolosa, Beasain, Eibar eta —Gipuzkoatik kanpora— Gasteiz.



*aunque ya por debajo de las 25.000 visitas anuales. Vitoria-Gasteiz, en Álava, Zestoa y Azpeitia en el interior guipuzcoano, y Orio, Zarautz y Getaria en la costa, son receptores excursionistas, normalmente por motivos alejados del principal, las compras.*

*El excursionista extranjero muestra una disposición muy acusada a la visita bien de las zonas fronterizas colindantes, bien a la comarca de Donostialdea. Esta tendencia a la concentración en una zona reducida e inmediata se repite cualquiera que sea el motivo principal de la visita. Sin embargo, sin salirse de esta tendencia, la concentración puede llegar a ser más o menos relajada, o dar más importancia a unos municipios sobre otros, en función de los motivos que subyacen a la estancia. Así, mientras ocio y trabajo son proclives a generar una cierta dispersión que lleva viajeros a un número relativamente importante de municipios, salud, estudios y, especialmente compras, reducen las comarcas de influencia a las inmediatas fronterizas.*

*El excursionista atraviesa la frontera buscando un entorno inmediato, lugares con condición de centro comarcal y un carácter urbano, capaz de ofrecerle una conjunción de variedad de contenidos comerciales y precios ventajosa. Ello hace de Irún el núcleo absoluto no ya de las visitas por compras sino incluso de toda la actividad excursionista. Quizás en función del carácter de parte de esas compras, y de la especialización que puede aportar como centro urbano más complejo, Donostia constituye una alternativa significativa.*

*El ocio, aun concentrado en las dos comarcas limítrofes, muestra una dispersión mucho más acusada. Donostia se constituye como el activo principal de la oferta, en este caso por encima de Irún, en tanto que aúna las principales motivaciones para el ocio excursionista: turismo de ciudad, gastronomía, actividad cultural especializada, cercanía y costa. El conjunto de la costa más cercana, hasta Zumaia, también se muestra atractiva, destacando Hondarribia sobre los demás municipios pequeños costeros. Fuera de estos tres polos, la alternativa principal es la visita a Bilbao presumiblemente gracias a su propuesta de ocio cultural altamente especializado. También puede hablarse de una tenue irradiación hacia zonas del interior, que alcanza a Vitoria-Gasteiz.*

*Las motivaciones laborales muestran dos tendencias diferenciadas. Una, que absorbe la mayor parte, muy volcada en Irún, principalmente, pero también en Donostia y el conjunto comarcal, que se asocia con la permeabilidad fronteriza en cuestiones de localización de la vivienda, fenómeno que ha dado con un contingente de residentes en Francia*

Errepidez bidaiatzen duten eta Euskal Autonomia Erkidegoa aukeratu duten txangolariek aukeratutako lekua, bisitaren maiztasunaren arabera 2007
*Destino de los viajes de los excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por frecuencia de la visita 2007*






















**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Erlijio-arrazoiek lurralde-barreiatze berezia sortzen dute. Ezaugarri nagusitzat, beste barreiatze-polo bat gehitzen dute, mugaren eta Donostiaren polo orokorren antzeko eraginarekin. Polo hori Loiolako santutegia eta mugakide dituen udalerriak —funtsean, Azpeitia— dira.

Familia-bisitek, osasunekoek, ikasketetakoek eta beste arrazoiengatikoek kontzentrazio handiak dituzte muga-eskualdeetan, Irun gailentzen dela. Osasunagatiko bisiten kasuan, Donostiara eta Irunera mugatzen dira, oso espezializatuak baitira.

Bisitaren maiztasuna edozein dela ere, muga-eskualdeek hartzen dute txangozaleen zatirik handiena. Barreiatze-mailek eta Irun Donostiari nagusitzeak erakusten du badela eskari bat, txangoaren maiztasunari jarraituz bereizten dena, segur aski txangoa egitearen azpian dautzan arrazoiei loturik.

Bisitek udalerrietan eta eskualdeetan duten barreiatzea, maiztasun handiz eta ertainez egiten diren bisitena da, topea seihilekokoetan duela. Horrek guztiak Gipuzkoako kostan eta barrualdean, Bilbon eta —neurri txikiagoan— Gasteizen banatzea dakar. Ezin da ahaztu, betiere, mugako kontzentrazio maila altu-altua, maiztasunak jaitsi ahala galduz doana. Noizbehinkako maiztasuna duten bisitak muga-ingurura eta Donostiara mugatzen dira, gehigarriren batekin; azken horien artean, Bilbo nabarmentzen da.

Bigarren alderdi aipagarria da Irun garrantzia galduz doala, maiztasunak gutxitu ahala. Egunerokotasunak, herri horretara erabat bideratutako bisitak sortzen ditu, nahiz eta ingurumarietan irradiazio handia izan. Noizbehinkakotasunak, berriz, Donostiaren eta Irunen pisuak berdintzea dakar —Irun nolabait ere gailentzen den arren—, eta berezitasun handia izatea, hau da, ondoko inguruneetara irradiazio urria izatea.




*pero con trabajo situado en la CAE. Otra, quizás más minoritaria pero ligada a una elevada dispersión, en la que Bilbao y el interior guipuzcoano muestran una vitalidad significativa, asociada más puramente con los contactos ínter empresariales. Destacan municipios como Azpeitia, Tolosa, Beasain, Eibar y, ya fuera de Gipuzkoa, Vitoria-Gasteiz.*

*Los motivos religiosos generan una dispersión territorial particular. Como rasgo principal añaden un nuevo polo principal de dispersión de similar incidencia a los generalizados fronterizo y donostiarra. Este polo viene dado por el Santuario de Loyola y sus municipios limítrofes, fundamentalmente Azpeitia.*

*Visitas familiares, de salud, estudios y otros motivos muestran concentraciones fuertes en las comarcas limítrofes, con primacía de Irún. En el caso de las de salud, se circunscriben solo a Donostia e Irún, dado su carácter especializado.*

*Cualquiera que sea la frecuencia de visita, las comarcas limítrofes absorben la mayor parte del contingente excursionista. Es en los grados de dispersión, por un lado, y en la prominencia de Irún sobre Donostia, por otro, donde se hace patente la existencia de una demanda diferenciada de acuerdo a la habitualidad de la excursión, presumiblemente en asociación a las motivaciones subyacentes por las que éstas se efectúan.*

*La dispersión de la visita por diferentes municipios y comarcas es más propia de visitas que se realizan con frecuencias altas y medias, con tope en las semestrales. Todas ellas generan cierto grado de distribución por la costa e interior guipuzcoano, Bilbao, y en menor medida ya, Vitoria-Gasteiz. Ello sin perder de vista un muy alto de concentración fronteriza que se va perdiendo a medida que las frecuencias bajan. Las frecuencias esporádicas generan visitas que se reducen al entorno fronterizo y a Donostia, con algunos añadidos entre los que destaca Bilbao.*

*El segundo aspecto destacado es la progresiva pérdida de importancia de Irún a medida que las frecuencias se reducen. Si la cotidianidad genera unas visitas absolutamente volcadas en esta localidad, aún con una significativa irradiación hacia su entorno, la eventualidad se expresa en una relativa similitud de peso entre Donostia e Irún, aún con cierta prominencia de las segunda de las localidades, y en una elevada especificidad, esto es, escasa irradiación hacia sus entornos inmediatos.*

# KLIK BAT EGIN ETA TURISMOARI BURUZKO INFORMAZIOA ESKURA IZANGO DUZU

# INFORMACIÓN DEL TURISMO AL ALCANCE DE UN CLICK

## www.euskadi.net/turismo

Euskal TURISMOAREN SEKTORERA zuzendutako WEB PROFESIONALA

- Azterlanak eta Estatistikak
- Dirulaguntzak
- Prozedura Administratiboak
- Kalitatea Sektorean
- Bekak, formazioa eta enplegua
- Seinaleztapen gidaliburua
- Turismoaren Legeria
- Argitalpenak

La WEB PROFESIONAL para el SECTOR TURÍSTICO vasco

- Estudios y Estadísticas
- Ayudas y Subvenciones
- Procedimientos Administrativos
- Calidad en el sector
- Becas, formación y empleo
- Manual de Señalización turística
- Legislación
- Publicaciones

## www.euskaditurismoa.net
## www.paisvascoturismo.net

GURE BIDAIARIENGANA zuzendutako TURISMOKO WEB gunea

- Ostatuak
- Mapak
- Garraioa
- Aisialdia
- Gastronomia
- Kultura
- Bidezidorrak
- Biltzarrak eta Azokak
- Kirolak eta natura

La WEB TURÍSTICA para NUESTROS VIAJEROS

- Alojamientos
- Mapas
- Transportes
- Ocio
- Gastronomía
- Cultura
- Rutas
- Congresos y Ferias
- Deportes y Naturaleza

EUSKADI ...made in

Lanketa / Elaboración: ARALDI
Fotokonposaketa / Fotocomposición: mccgraphics
Inprimaketa / Impresión: mccgraphics

ISSN: 1699-342X
Lege Gordailua / Depósito Legal. SS-1167/2000

Argibide gehiago behar izanez gero:
Harremanetarako telefonoa: 945 01 99 61 / Fax: 945 01 99 31
e-mail: publituris@ej-gv.es
Web: www.euskadi.net/turismo | Euskal turismoaren estatistika orokorrak
www.eustat.es

Para más información:
Teléfono de contacto: 945 01 99 61 / Fax: 945 01 99 31
e-mail: publituris@ej-gv.es
Web: www.euskadi.net/turismo | Estadísticas generales del turismo vasco
www.eustat.es

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz